ANGELUKO IKASLEAK
1997-98ko IKASURTEA.
OSOGUNEKO ERAKASKERA.

HAMABIGARREN ERAKASPENA ⊘ 

(I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Etxetiargoa arauka gehiagotzen dutea jabeek?
2. Nola da bizia Baionan? kario? merke? Zertako?
3. Idazlariak zerbeit erraiten dauku Miarritzeg? Zer?

## (II) BIZIA BAIONAN 4

IRIART URRUTY

Badakit estai[32] bat, bi zathitan aloitua[33]: zathi ederrena, handiena emendatu diote han dagon andere adin handiko bati sei ehunetarik berrehun gehiagoz; ttipiena, hitsena, gibel batetarat dagona, bi haurrekilako senhar-emazte lanetik bizi diren batzuri, *berrehunez*... bertzeari bezala.

Arauka[34] galdatzen ere ez dakite. Ahora jina erran, eta kontent ez dena doala fuera kanpo.

Handienetarik bat, ezin sinetsizkoa da: parada gaitzeko tokian ur[35] batzuek *hemezortzi ehun libera* pagatzen zutena. Zapetaria eder batek hartu du... zuen ustez zonbatetan?

—Nork daki? Bizpahiru miletan othe?

—Ba, zera! *Bortz mila eta bortz ehunetan.*

Hartu duena erhoa ez balin bada, zer irabazi ez dio eman behar zapetak? Parea 50, 70 liberaz goitikoak omen dire. Araberan gostaiak[36] ere ba ordean. Aloimendu horren araberako patanta[37] sehi-muthilak eta oro pagatuz, zer soma[38] izigarria ez da heldu urthearen buru batetik bertzera?

Miarritzen egin zuten holatsuko jauzi bat, goiti, duela zonbeit urthe aloimenduek; ba eta urthe laburrik barne, beheiti ere bertze bat, ez ttipiagoa.

Ikusiko. Behin gorapenean gira; estakurua dute nausiek: bizia kario dela. Egoiliarrentzat[39] ez othe? —Zergak emendatu diozkatela —Nori ez?

Batek egun hoitan erraiten zaundana nihauri, bizitegi batez solasean ginelarik: «Zer nahuzu? Zubien zabaltzeko edeki[40] dazkidate 67 libera. —Ba eta eni 40 sos. —Ikusten duzu; ez da zuzen; ez da bardin. —Egia zuk, jauna; hamar bat egoiliar baititutzu, khen-ozute bakotxari ehuneko bat —edo zertako ez berrehun gehiago? Bakotxetik urthean berrehun libera jalgiz[41], hatzemanen duzu *behin aldi bat* emaitea behartu zautzun 67 liberakoa». —Hori erranik, hantxe utzi dut ene gizona irriz. Puska on bat da gaizoa. Pentsa zer juduak ahal diren bertze batzu!

nahuzu = nahi duzu

### 34. UKAN. Conj. à dble cplt Indic. Présent.

Neri = à moi. Objet pluriel. Compl. Indir. singulier

Zuk dauzkidazu = Vous me les avez
Harek dauzkit = Il me les a
Zuek dauzkidazue = Vous me les avez
Heiek dauzkidate = Ils me les ont
Emaiten dauzkidazu = vous me les donnez

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Badakit — 32. Doala
33. Diozkatela — 34. Dazkidate
35. Zaundana — 36. Zautzun

### 31 JAKIN. Indicatif.

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Nik dakit | : je le sais | dazkit | : je les sais |
| Hik dakik/n | : | dazkik/n | : |
| Zuk dakizu | : | dazkizu | : |
| Harek daki | : | dazki | : |
| Guk dakigu | : | dazkigu | : |
| Zuek dakizue | : | dazkizue | : |
| Heiek dakite | : etc. | dazkite | : |

### 32. JOAN. Subjonctif. Présent

Imparfait inusité

Ni noan = que j'aille
Hi hoan = que tu ailles
Zu zoazin = que vous alliez
Hura doan = qu'il aille
Gu goazin = que nous allions
Zuek zoazten = que vous alliez
Hek doatzin = qu'ils aillent

### 33. UKAN. Conj. à dble complément Indic. Présent

| O. S. C. I. Sing | | Objet plur. C. Indir. sing | |
|---|---|---|---|
| Nik diot | : Je le lui ai | N. dizkiot : diozkat | : je les lui ai |
| Zuk diozu | : Vous le lui avez | Z. dizkiozu : diozkazu | : vs les lui avez |
| Harek dio | : Il le lui a | H. dizkio : diozka | : |
| Guk diogu | : Ns le lui avons | G. dizkiogu : diozkagu | : |
| Zuek diozue | : Vs le lui avez | Z. dizkiozue : diozkazue | : |
| Heiek diote | : Ils le lui ont | H. dizkiote : diozkate | : etc |

Hari = à lui — Hari = à lui